

1.2. 1782/2003 ARAUDI HORIZONTALA ETA BATZORDEAK EMANDAKO GARAPENERAKO ARAUDI BERRIAK.

2003ko irailaren 29ko Kontseiluaren 1782/2003 Araudiak (EEEE L270, 2003/10/21ekoa) honako elementu hauek finkatzen ditu:

- Europar Batasunaren Nekazaritza Politikaren errentari laguntzeko erregimenen babesean egindako, eta Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Funtsaren (NBBEF) Berme Sailak finantzatutako ordainketa zuzenekin lotutako xedapen orokorrak, 1227/1999 (EE) Araudian jasotakoak izan ezik.
- Nekazarien errenta osatzeko laguntza; Ordainketa Bakarra deituko da.
- Gari gogor, landare proteazeo, arroz, oskoldun fruitu, energia-laborantza, fekularako patata, esne, hazi, belarkien laborantza, ardi- eta ahutz-haragi, behi-haragi eta lekadun aleen produktoreei laguntzeko erregimenak.

Araudia, bost titulutan egituratzen da:

- I. titulua: Aplikazio eta definizioen esparrua.
- II. titulua: Baldintzazkotasun, modulazio, ustiategietarako aholkularitza-sistema, eta kudeaketa eta kontroleko sistema integralari buruzko xedapen orokorrak.
- III. titulua: Ordainketa bakarraren erregimena.
- IV. titulua: Bestelako laguntza-erregimenak.
- V. titulua: Xedapen iragankorrak eta azken xedapenak.

Gerora, araudi hori aldatu egin zuten, hainbat arrazoiren artean, Europar Batasunean Estatu kide berriak sartu zirelako (864/2004 eta 583/2004 Araudiak). Bestalde, tabako-, kotoi-, lupulu- produktoreentzako eta olibadiak dituzten nekazarietzako laguntza-erregimenak ezarri dituzte (864/2004 araudia). Halaber, ordainketa bakarraren erregimena askatasunez edo zati batean aplikatzeko eta azaleren arabera ordainketa bakarraren erregimenaren urteko finantza-horniduretarako aurrekontuetan mugak jarri dituzte (118/2005 araudia).

Europako Batzordearen 2004ko apirilaren 21eko 795/2004 (EE) Araudian, ordainketa bakarra aplikatzeko bete behar diren xedapenak ezartzen dituzte, eta nekazariei laguntzeko erregimen jakinak ezartzen dituzte. Halaber, Europako Batzordearen 2004ko apirilaren 21eko 796/2004 (EE) araudian aurreikusitako baldintzazkotasuna, modulazioa eta kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituzte, eta nekazariei laguntzeko erregimen jakinak ezartzen dituzte.

Azkenik, 1782/2003 Araudiaren ondorengo xedapen arautzaileak argitaratu dituzte, Merkatu Antolakunde Bateratu (MABak) jakinak eta landa-garapenerako laguntzak aldatzeko.

Kontuan hartu behar da aurki, Nekazaritza Politikaren finantziarioa arautuko duen eta NBBEF desagertzea, eta FEAGA eta FEADER Fondo berriak sortzea aurreikusi duen Araudi berria onartuko dutela.